




Bidasoa - Txingudi

SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD MUGIKORTASUNAREN EUROPAKO ASTEA SEMAINE EUROPÉENNE DE LA MOBILITÉ

IRUN - HONDARRIBIA - HENDAYE



Bidasoa - Txingudi



2023

SEPTIEMBRE - IRAILA - SEPTEMBRE



TXIN



MOBI



¡COMBINA Y MUÉVETE!
KOMBINATU ETA MUGITU!
COMBINER LES MOBILITÉS!

AGENDA	IRUN	HONDARRIBIA	HENDAYE
VILLAGE VELO	ENSANCHE SABADO - LARUNBATA - SAMEDI 16 17:00 - 19:00	BUTRON DOMINGO - IGANDEA - DIMANCHE 17 11:30 - 13:30	GAZTELU ZAHAR MIROOLES - ASTEAZKENA - MERCREDI 20 15:00 - 17:00
NAGUSIKLETA	AMA XANTALEN LUNES - ASTELEHENA - LUNDI 18 16:00 - 18:00	SAN GABRIEL JUEVES - OSTEGUNA - JEUDI 21 16:00 - 18:00	HAIZPEAN MARTES - ASTEARTEA - MARDI 19 15:00 - 17:00
MARCHIA NOCTURNA	HENDAYE => IRUN => HONDARRIBIA VIERNES - OSTIRALA - VENDREDI 22 21:00 - 23:00		

+ INFO => BALAZTA ELKARTEA - RECYCL'ARTE



Bidasoa - Txingudi

2023KO EUROPAKO MUGIKORTASUN ASTEA JARDUEREN EGUTEGIA

LABURPEN TAULA HIRIAREN ARABERA

	IRUN	HONDARRIBIA	HENDAIA
VILLAGE VÉLO (baliozkotua)	Zabalgunea Larunbata 09/16 17:00- 19:00	Butroi Igandea 09/17 11:30- 13:30	Gaztelu Zahar Asteazkena 09/20 15:00- 17:00
NAGUSIKLETA (baliozkotua)	Ama Xantalen Astelehena 09/18 16:00 – 18:00	San Gabriel Osteguna 09/21 16:00 – 18:00	Haizpean Asteartea 09/19 15:00 – 17:00
GAUEKO MARTXA		Hendaia (Gaztelu Zahar) Irun (Urdanibia plaza) Hondarribia (San Pedro kalea) Ostirala 09/22 21:00 – 23:00	

LABURPEN TAULA EGUNAREN ARABERA

Larunbata, irailak 16	Village Vélo - Irun
Igandea, irailak 17	Village Vélo - Hondarribia
Astelehena, irailak 18	Nagusikleta - Irun
Asteartea, irailak 19	Nagusikleta - Hendaia
Asteazkena, irailak 20	Village Vélo - Hendaia
Osteguna, irailak 21	Nagusikleta - Hondarribia
Ostirala, irailak 22	Gaueko martxa Hendaia - Irun - Hondarribia



Bidasoa - Txingudi

JARDUEREN AZALPENA ELKARTEEN ALDETIK

⇒ **“Village vélo” haurrentzat**

Balaztak eta Recycl'Artek “village vélo” bizikleta-tailarren jarduera egitea proposatu dute udalerrri bakoitzean. Bizikleta-mugikortasunari buruzko hainbat jarduera izango dituen azoka da, bizikletaren erabilera sustatzeko eta horren gainean sentsibilizatzeko (2 ordu). Elkarateak haur txokoekin eta udaleko aisialdi-zentroekin harremanetan egongo dira haurrekin animazioak egiteko.

Hauek izango lirateke jarduerak:

- Memoria-jolasa: bi herrialdeetan dauden arauetarako buruz (Recycl'Arte)
- Gurpilaren jolasa: bizikletaren zatiak ezagutzeko (Recycl'Arte)
- Bici-smoothie: egin fruta-zukua bizikleta oso berezi baten pedalak astinduz (Recycl'Arte).
- Bizikletan seguru ibiltzeko (biribilguneetan...) eta/edo patinetea/bizikleta/bizikleta elektrikoa/oinez aukeren arteko egokitasunari buruzko bideoak proiektatzea (Recycl'Artek birziklatutako materialarekin eraikitako dendatxoak eta eskualdeko hizkuntzetara itzulita: Balazta eta/edo Recycl'Arte, hizkuntzaren arabera. (Recycl'artek egindako bideo-muntaketa azpidatziekin)
- Eskulanak birziklatutako materialarekin eta pintura-tailerra (Balazta)
- Haurrentzako bizikletarekin egiteko gaitasun-zirkuitua (Balazta Irunen eta Hondarribian/Recycl'Arte Hendaian)

⇒ **Bizikleta-paseoak adinekoentzat, “Nagusikleta”**

Bizikletaz ibili ezin duten pertsonak bizikletan paseo bat ematea, une atsegina pasatzea eta esperientzia ahazteztina izatea da helburua.

Jarduera bi pertsona eramateko egokitutako trizikloekin egingo da.

Triziklo bakoitzean 2 pertsona joan daitezke. Aurten 3 triziklo daude.

Elkarateek hiri bakoitzean bi paseo egitea planteatu dute, hala, 12 pertsonak egin ahal izango dute paseoa hiri bakoitzean.

Guztira, 36 pertsona paseoan.

Paseoak ordubete eta ordu eta erdi artekoak izaten dira.

Adineko pertsonen aurretiazko antolakuntza eta mugikortasuna: Nagusilan Irunen eta Hondarribian eta Recycl'Arte Hendaian.



Bidasoa - Txingudi

Trizikloak boluntarioek eta laguntzaileek eramaten dituzte, errepideak mozteko bidegurutzeetan eta parte-hartzaileei laguntzeko. Pertsona horiek prestakuntza dute Balaztan eta Recycl'Arten.

Ahal den heinean, ibilbideak bidegorritik egingo dira. Galtzadatik joan behar izanez gero, laguntzaileen laguntzarekin egingo da, eta uneoro adieraziko dute trizikloak bertatik doazela.

⇒ **Helduentzako gaueko bizikleta-martxa musikatua 3 herrietatik**

Ostiralean, 09/22, 21:00etatik aurrera (autorik gabeko eguna): Hendaiatik abiatu eta Iruunik igarota Hondarribira helduko den bizikleta-martxa da.

Martxa honen helburua da hiru herrien artean mugitzeko autoaren alternatiba gisa bizikletaren erabilera sustatzea.

Martxarekin batera DJ bat izango da musika jartzen.

30 minutuko geldialdia egingo da Irungo Urdanibia plazan eta beste bat amaieran, Hondarribiko San Pedro kalean.

Ibilbide gehiena galtzadatik izango den arren, taldearen abiadura dela eta trafikoan ez du eragin handirik izango, erabiliko ditugun bideetako gehieneko abiadura 30 km/orduko baita.



Bidasoa - Txingudi

BIZIKLETA TAILERREI BURUZKO TXOSTENA
“VILLAGE VÉLO”
2023/09/20

Adierazitako beharrak:

- ⇒ Hendaiaiko Gaztelu Zahar frontoia, Irungo Zabalguneko plaza eta Hondarribiko Butroi pasealekua erabiltzeko baimena (Hondarribian izapideak EJKo portuekin egin behar dira).
- ⇒ 4 mahai, 16 aulki eta 3x3 metroko 4 karpak txiki jarri eta kendu behar dira 2 elkarrean artean.
- ⇒ Herri bakoitzean krokadura elektrikoak jarri behar dira, 220V eta 2500 wateko potentzia duen korrante-hargunearekin.

Funtzionatzeko modua:

- ⇒ Parte-hartzaileak lortzeko gizarte-zerbitzuen eta aisialdi-zentroen laguntza izango da.
- ⇒ Balazta eta Recycl'arte elkarteetako langileek eta boluntarioek hainbat jarduera-tailer muntatu eta desmuntatuko dituzte parte-hartzaileen sentsibilizaziorako eta dibertsiorako.
- ⇒ Oztopoen zirkuituak hartuko du eskatutako eremuaren gainerako zatia, gazteek bizikleta erabiltzeko arintasun handiagoa lor dezaten.

Gutxi gorabeherako ordutegiak:

- ⇒ Tailerrak larunbatean, irailaren 16an, izango dira 17:00etatik 19:00etara Irunen; igandean, irailaren 17an, 11:30etik 13:30era Hondarribian; eta asteazkenean, irailaren 20an, 15:00etatik 17:00etara Hendaian.
- ⇒ Muntaketa tailerrak zabaldu baino 1h30 eta 2h lehenago egingo da eta desmuntaketa amaitu eta 1h30/2h bitartean.

Beste gai batzuk:

- ⇒ Hendaiaiko eta Irungo Udalak partzuergo beraren parte direnez, udaleko brigadei eskatuko zaie mahaiak, aulkiak eta karpak uzteko, jartzeko eta kentzeko. Hondarribiko Udalak azpikontratak erabiltzen dituzenez halako zerbitzuetarako, udal-zerbitzuek esleitutako ohiko zerbitzuen hornitzailearengana joko dugu.
- ⇒ Halaber, Hendaiaiko udaleko brigadei eskatuko diegu aipatutako konexio elektrikoa izateko beharrezko lanak egiteko. Irungo eta Hondarribiko Udalek ez dituzte halako esku-hartzeak eskaintzen, beraz, halako zerbitzuetarako ohiko hornitzailearengana joko dugu.



Bidasoa - Txingudi

ADINEKO PERTSONEKIN EGITEKO PASEOEI BURUZKO TXOSTENA

“NAGUSIKLETA”

2023/09/19

Adierazitako beharrak:

- ⇒ Haizpean egoitzaren eta surf-etxolaren artean dagoen Hôpital Marinetik igarotzeko baimena, itsasertzeko errepidetik dagoen desbideratze konplexua ekiditeko.
- ⇒ Bidegorriak erabiliko ditugu nagusiki, zirkulazioan murrizketarik egin gabe.

Funtzionatzeko modua:

- ⇒ Izen-emateak EHPADen zuzendaritzarekin eta hirugarren adineko egoitzekin batera egingo dituzte Balazta eta Recycl'arte elkarteek:
 - EHPAD Haizpean Hendaian.
 - San Gabriel Hondarribian.
 - Ama Xantalen Irunen.
- ⇒ 3. adineko egoitzetako langileak arduratuko dira adinekoei trizikloetan instalatzen laguntzen.
- ⇒ Behar bezala formatutako elkarteen boluntarioak arduratuko dira paseoa ikuskatzeaz, bizikletako laguntzaileekin.

Gutxi gorabeherako ordutegiak:

- ⇒ Gutxigorabehera ordu bateko 2 irteera egokitutako 3 triziklotan Itsasoko bulebarreko eta Txingudiko badiako bidegorrietatik Hendaian; Behobia eta Oxinbiribil artean Irunen, eta hondartza eta portu aldera Hondarribian.
- ⇒ 1. irteera 16:00etan Ama Xantalen egoitzatik astelehenean, irailaren 18an, Irunen; 1. irteera 15:00etan EHPAD Haizpeanetik asteartean, irailaren 19an, Hendaian; 1. irteera 16:00etan San Gabriel egoitzatik ostegunean, irailaren 21ean, Hondarribitik.
- ⇒ Irun eta Hondarribiaren kasuan, Nagusilaneko 3. adineko zerbitzuekin lankidetzan jardungo da.



Bidasoa - Txingudi

BIZIKLETA MARTXARI BURUZKO TXOSTENA
GAUEKOA ETA MUSIKATUA
2023/09/22
(baliozkotzeke)

Adierazitako beharrak:

- ⇒ Agente bat joango da taldearen aurretik eta beste bat atzetik, ahal dela bizikletaz (udaltzaingoak erantzun zain gaude).
- ⇒ Ez du eragin handirik izango trafikoa, 30km/orduko errepideak erabiliko baitira nagusiki.

Aurreikusitako ibilbidea:

- ⇒ Gaztelu Zahar frontoitik atera
- ⇒ General de Gaulle bulebarra
- ⇒ Rue de la Gare
- ⇒ Santiago zubia
- ⇒ Iparralde etorbidea
- ⇒ Gernikako Arbola plaza
- ⇒ JJ Tadeo Murguia hiribidea
- ⇒ Santiago kalea.
- ⇒ Dunboa kalea
- ⇒ Pelegrin de Uranzu
- ⇒ Urdanibia plaza
- ⇒ Eguzkitzaldea kalea
- ⇒ Euskal Herria hiribidea
- ⇒ Gipuzkoa etorbidea
- ⇒ Kolon pasealekua
- ⇒ Hondarribia kalea
- ⇒ Mendelu.
- ⇒ Kosta kalea
- ⇒ Santa Engrazia
- ⇒ Minasoroeta.
- ⇒ Sabin Arana Goiri
- ⇒ San Pedro kalea.

Gutxi gorabeherako ordutegiak:

- ⇒ Irteera 21:00etan Gaztelu Zaharretik
- ⇒ Nazioarteko zubitik Irunera igarotzea 21:20an.
- ⇒ Urdanibian geldialdia 21:40an.
- ⇒ Ibilbidea berrekin 22:15ean.
- ⇒ Zubimuxu biribilgunetik Hondarribira igarotzea 22:30ean.
- ⇒ Ibilbidearen amaiera San Pedro kalean 22:50ean.